

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZANBRANAKO UDALA

Behin betiko onartzea 2017ko aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu udal honen 2017rako aurrekontu orokorrari hasierako onarpena eman zion erabakiaren aurka. Beraz, bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ALHAOren 78. zenbakian, 2017ko uztailaren 10ean, argitaratu ondoko jendaurreko erakustaldia igarota, aurrekontu hori behin betiko onartuta geratzen da. Hona hemen laburpena, kapituluka:

SARREREN EGOERA

DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
SARRERA ARRUNTAK	
1. Zuzeneko zergak	262.149,89
2. Zeharkako zergak	10.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	45.100,00
4. Transferentzia arruntak	156.848,18
5. Ondare sarrerak	3.306,58
KAPITAL SARRERAK	
7. Kapital transferentziak	149.649,44
SARRERAK, GUZTIRA	627.054,09

GASTUEN EGOERA

DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Langile gastuak	153.558,10
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	126.706,04
3. Finantza gastuak	2.350,82
4. Transferentzia arruntak	89.748,96
KAPITAL ERAGIKETAK	
6. Inbertsio errealak	220.672,44
7. Kapital transferentziak	2.000,00
9. Finantza-pasiboak	32.017,73
GASTUAK, GUZTIRA	627.054,09

Langileen eranskina

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal funtzio publikoaren Legeak 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, udal honek onartutako lanpostu zerrenda argitaratzen da:

1. Karrerako funtzionarioak

1.1 Gaikuntza nazionalekoak

a) Eskala: idazkari kontuhartzaileak; plaza kopurua: 1; taldea: A1; titulazioa: Zuzenbideko, Politika Zientzietako, Soziologiako edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziaduna; 4. hizkuntza eskakizuna derrigortasun datarik gabe; egoera: aktiboan; destino-osagarriaren maila: 26; berariazko osagarria: 21.288,48 euro; betetzeko era: lehiaketa; lantokia: udaletxea.

1.2 Administrazio orokorrekoak

a) Azpieskala: laguntzaileak

1. Izena: administrari laguntzailea; egoera: aktiboan; taldea: D; destino-osagarriaren maila: 18; berariazko osagarria: 13.395,54 euro; titulazioa: Eskola Gradua, LHI; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2005eko urtarrilaren 1a; betetzeko era: oposizio-lehiaketa; lantokia: udaletxea.

2. Lan kontratupeko langileak

Lanpostuaren izena: garbitzailea. Administrazio egoera: aktiboan (lanaldi partziala). Kategoria profesionala: menpekoak; taldea: E; maila: 8; berariazko osagarria: 12.269,16 euro; titulazioa: Eskola Ziurtagiria; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe; lantokia: udal eraikinak.

Korporazioko kideen ordainsariak eta diru esleipenak:

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hauek dira udalbatzak onartutako aurrekontuari buruzko udal araudian jasotzen diren kalte-ordainak eta bileretara joateagatiko zenbatekoak:

a) Alkateak urtean 27.594,56 euro jasoko ditu alkatezari eta udal gobernuari dagozkion lanak betetzeagatik.

b) Osoko bilkura, bilera eta batzordeetan parte hartzeagatik, zinegotziek, alkateak izan ezik, 60 euroko dieta kobratuko dute konpentsazio bezala, joaten diren bilkura bakoitzeko.

Erabaki honen aurka, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita udal honen aurrekontu orokorra, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Zambrana, 2017ko abuztuaren 2a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI